



2014KO MAIATZAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko maiatzaren hogeita hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Inazio Estensoro Eskisabel eta.

Haizea Mendia Insausti eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko maiatzaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 35 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEI MILA ZAZPIEHUN ETA HAMAR EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (20.710,59 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-06 zbk.dun esped.: alta ematea 2014ko apirilaren 7tik aurrera, astelehenetik larunbatera egunero ordu bete, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 a izango da.
- 09-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea astean 7,5 orduetik 9 ordura. 2014ko apirilaren 2tik aurrera, onuradunak zainketa handiagoa behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %48 izango da.
- 09-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, astean 2 orduetik 3 ordura, 2014ko apirilaren 14tik aurrera, bere osasun egoeraren aldaketagaitik. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-



- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako laguntzaren zenbatekoa aldatzea, hilean 43,02€ izatetik 41,63€ izatera urtarriletik abendura, onuradunaren diru sarrerak aldatzeagatik. Ematen zaiona eskatutakoaren %90a da.
- 13-01-15 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairu gastuetarako laguntzatik baja ematea martxoko hilabetetik, bizileku aldaketagatik.

Elbarrituen garraioa.-

- 14-17-01 zbk.dun esped.: urte guztirako 400,51€, hau da, hilean 36,41€ abuztuan izan ezik.
- 14-17-02 zbk.dun esped.: urte guztirako 400,51€, hau da, hilean 36,41€ abuztuan izan ezik.
- 14-17-03 zbk.dun esped.: urte guztirako 400,51€, hau da, hilean 36,41€ abuztuan izan ezik.
- 14-17-04 zbk.dun esped.: urte guztirako 400,51€, hau da, hilean 36,41€ abuztuan izan ezik.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, eta aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza kontutan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Beneditarrak Fundazioari, HOGEI MILA EURO (20.000 €)ko dirulaguntza onartzea. 2014ko urtarrilaren 24ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrean 10.000 €ko zenbatekoa aurreratzea erabaki zen, beraz orain beste 10.000 € emango zaizkio.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak lau gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

